

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3786

*1570/2023 EBAZPENA, uztailaren 6koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Esther Litago Sola andrea Administrazioko eta Kudeaketako Atalburu (Langileen Arlo Juridikoa) izendatzen den, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Otsailaren 25eko 582/2023 Ebazpenaren bidez (2023ko ekainaren 9ko EHAA 109. zk.), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESiko Administrazioko eta Kudeaketako Atalburua (Langileen Arlo Juridikoa) lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia egin zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Esther Litago Sola andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendapen askez izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESiko Administrazioko eta Kudeaketako Atalburu (Langileen Arlo Juridikoa).

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Esther Litago Sola andrea izendatzea, Administrazioko eta Kudeaketako Atalburu (Langileen Arlo Juridikoa) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2023ko uztailaren 6tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko ESleri Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2023ko uztailaren 6a.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea.

E B (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,  
MARIA PILAR SANCHEZ GARDUÑO.